

EMAKUMEEN MUNDUAK 2026

XV. Nazioarteko kongresua

Gernika-Lumo eta Bilbo, Euskal Herria
2026ko maiatzak 20-24



PROPOSAMENAK AURKEZTEKO DEIALDIA

Emakumeen munduak kongresua genero ikas- ketak eta aktibismo feminista uztartzen dituen nazioarteko topaketa da; 1981ean diziplina arteko gune gisa sortu zenetik, 14 edizio antola- tu ditu hainbat herrialdetan.

XV. Emakumeen Munduak 2026 Nazioarteko kongresua (MM26) Gernika-Lumon eta Bil- bon, Euskal Herrian, egingo da 2026ko maia- tzaren 20tik 24ra. Tokian, nazio-mailan eta mundu-mailan bakea eraikitzen diharduten emakumeen* oinarritzko erakundeak eta kolektiboak, ekintzaileak eta ikertzaileak fisikoki biltzeko aukera izango da. Egunerokotasunetik, bazterretatik, lurraldeetatik, ekintza kole- ktibotik, artetik, hitzetik, ikerketatik, zaintza- tik, erresistentziazatik eta eraldaketatik bakea eraikitzen dutenen arteko topagune, entzute eta aitortza gune bat sortuko dugu. Ikuspegi feminista duen mundu baketsu batean, bake kulturarako

estrategia bateratuak imajinatzea ahalbidetuko diguten sareak ehuntzeko.

Komunitate, mugimendu eta jakintza anitzen arteko elkarrizketarako plataforma globala izango da kongresu hau. Ezagutza akademikoa nahiz lurraldetik, esperientziazatik eta egunerokotasunetik sortzen den ezagutza balioesten dugu.

Munduko txoko guztietako emakume*, kolektibo, oinarritzko erakunde, aktibista, ikertzaile, ikasle, artista eta komunitateei gonbidapena luzatzen diegu beren proposamenak bidal ditzaten, bakea ikuspuntu anitz, kritiko eta koka- tuetatik birpentsatzea eta irudikatzea helburu duen nazioarteko kongresu honetan parte hartzeko. Proposamenak hizkuntza anitzetan jasoko ditugu: euskaraz, gaztelaniaz, portugesez, arabieraz, ingelesez, frantsesez, etab.

Zortzi gai-ildo hauek jorratuko dira kongresuan:

- » Ondasun komunak.
- » Bakearen aldeko metodologia feministak.
- » Memoria eta indarkeriak ez errepikatzeko bermeak.
- » Zaintza eta egunerokotasuneko bakeak.
- » Gorputza-lurraldea-bakeak.
- » Subiranotasuna eta autonomiak.
- » Desmilitarizazioa, des-sekuritizazioa eta armagabetze globala.
- » Migrazioak, erbesteratzea eta behartutako lekualdatzeak.

*Emakumeak**: genero identitate, espresio eta disidentzia anitzak biltzen dituen terminoa.

Nolako proposamenak bilatzen ditugu?

Egitarau zabala, bizia eta anitza nahi dugu proposatzen ditugun gai-ildoen dimentsio anitzetan. Horregatik, parte hartzeko hainbat formaturi zabaltzen diogu deialdia: panelak, mahai-inguruak, tailerrak, ekintza artistikoak, ikus-entzunezko proiektzioak, hitzaldiak, aitortzak edo bestelako formatu sortaileak.

Nola parte hartu?

Proposamena dokumentu labur batean aurkeztu (500 hitz gehienez), honako hauek barne:

- » Gai-ildoa
- » Proposamenaren izenburua
- » Formatu-mota (panela, tailerra, lekukotza, etab.)
- » Edukiaren eta ikuspegiaren deskribapen laburra
- » Proposamena egiten duen pertsonaren edo kolektiboaren datuak
- » Behar teknikoak (egotekotan)
- » Herrialdea

Emakumeengandik*, feminismoetatik, lurraldeetatik, gorputzetatik eta erresistentzietatik bakeak berrirudikatzeko foroa izango da MM26a. Elkar aitortzeko, elkarri galdetzeko eta elkarrekin beste mundu posible batzuk eraikitzen jarraitzeko.

Epe garrantzitsuak:

- » Azaroak 17 - otsailak 1: proposamenak aurkeztea
- » Otsailak 1 - martxoak 1: proposamenak aztertu eta hautatzea
- » Martxoak 1 - martxoak 15: aukeratutako hautagaiei jakinaraztea eta onartzea
- » Otsailak 1 - apirilak 30: izena ematea

BIDALI EZAZU ZURE PROPOSAMENA GURE WEBGUNEAREN BITARTEZ

AURKEZTEKO EPEA: 2026.02.01

Informazio eguneratua atzemateko: mm26.org

#MM26
www.mm26.org

Antolatzaileak:



gernikatik
mundura



Sorlanazko berriak
Semillera
Bakearen aldeko emakumeak
Mujeres por la paz
Mujeres por la paz

Babesleak:



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD